

Barrika Barrik 25 urte bete ditu!!!!

Bizkaiko Barrika udalerrian kokatutako Barrika Barri Egoitzak joan den uztailan bere zilarrezko ezkontzak bete ditu. Urte hauetan Bizkaiko eta batez ere Uribe-Kostako 1.340 nagusi zaindu ditu.

Data garrantzitsu hau ospatzeko zentroak izugarriko jaia antolatu zuen, bertan, egoitzako erabilitzaile, familia, eta zentrotako profesionalen parte hartu zutelarik. Ekitaldian, Barrikako jubilatuen abesbatzak jokatu zuen eta musika trikitixarekin eta euskal dantza ere egon zen. Aldi berean, egoitzan



25 urte daramaten profesionaleri omenaldia egin zireten, bai eta antzinako egoiliarrei ere. Urteurren berezi honen aurrean, egoitzako zuzendaria den Gabirel Azaolak, ondokoa azpimarratzen du: "egoiliar eta profesionalen dibertsitatea alde

batera utzita, atsegingarriena izan da guztion artean sortutako elkarbizitza estua, guztiok, Barrika Barriko familia aparta bihurtuz".

Zentzu honetan, "nahiz eta 25 urte pasatu, badi-rudi atzo izan zela abentura hau hasi zenean.

Oraindik, gaur egun, lehen talde haren profesionaliak gaude eta beste batzuekin ere harreman onak mantentzen ditugu. Bai eta, zenbait familiarrekin, une batean guregan jarri zuten konfiantzagatik". 25 urte hauetako jarduerari dagoki-

onez, Azaolak hau azaltzen du: "gaur modu desberdinean lan egiten da, garai honetako lan metodoak erabiltzen ditugu, baina ez da inoiz galdu behar pertsona nagusiak guztiaren zentroan mantentzeko gure konpromisoa"

Mugarik gabeko Medikuetarako dohaintza

Bilbao-Santutxuko Kirikiño eta Barrikako Barrika Barria egoitzetako nagusiek 1.555 euro eman diote Mugarik gabeko Medikuek elkarteari. Zentro bietako nagusiek beraiek erakunde honi dirua ematea erabaki dute. Joan den urtean antolatutako zenbait ekimen solidario, hala nola, merkatu solidarioak, diru bilketak, antzerki mesedegariak, belaunaldien arteko jarduerak, eta abar, eginez lortu da diru kopuru hori. Datorren urtean, egoitzetako nagusiek Aspanovas elkarteari emango diote orain egiten ari diren ekintza solidarioetan biltzen ari den dirua. Pasa den urtean, nagusiek, EITB Maratoiarri 1.373,27 euro eman zioten.

Nagore Eskisabel, Mugarik Gabeko Medikuen ordezkariak egoitzetako egoiliarren eskuetatik hartu zuen dirua, orain gutxi "Barrika Barri eta



Barrika Barri egoitzek antolatu zuten eta zahartzeko aktibo, pertsona nagusien eta urritasun fisiko edo adimenezko dutenen kolektiboak gizarte-eratzaren aldeko apustua egin zuten.

2019ko egutegi solidario berria Aspanovasen alde :)



Kirikiño eta Barrika Barriko gure egoiliarrekin batera egutegi solidarioa prestatzen ari gara. Nortzuk izango dira protagonistak?. Euskal gizartearen oso ezagunak izango dira. Gure nagusiek bildutako dirua Aspanovas, Bizkaiko minbizia duten umeen Elkartearentzat izango dela erabaki dute.

Begiratu irudia: Ze ospetsuri dagokio? :)



Bide Nagusia 7
Barrika 48650
Telf. 94 677 44 77
Fax. 94 677 44 32
barrikabarri@euskogees.com



Torre Gorostizaga 2 y 4 Bil-
bao 48004
Telf. 94 412 74 00
Fax. 94 411 08 58
kirikiño@euskogees.com



Bilboko Udalak All-impiadas saritu ditu

Bilboko Udalak, "Bilbao Gazte Balioak martxan" sariaren lehenengo edizioan, ALL-IMPIADAS izeneko ekimena saritu du, gazteen giza aldaketaren paper protagonista onartu eta indartzeagatik.

ALL-IMPIADAS ekimen berritzaile hau, Barrikako Barrika Barri eta Santutxuko Kirikiño Egoitzek, Berrio Otxoa Ikastetxeak, Almi Ikasketako Zentroak eta Gizartea Sortzen Foroak bultzatu eta antolatu izan da. **Zorionak!**





AZPIMARRATZEKOAK




Etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketarekin dugun konpromisoari jarraituz, gure egoitzetako eremuak berrizatzeko lanak egiten ari gara

Rocioko jaja ospatu genuen. Gure egoiliarrek familiekin batera oso ondo pasatu zuten



Barrika Barri eta Kirikiño Komunitatean izeneko jardunaldian izugarritzko paella egin genituen, atzarrak milizkatzeko

Gure egoiliarren aisiarako mota askotako jarduerak antolatzen ditugu. Irudian, Plentziako hondartzan gustura egon zirela ikus dezakezue



Onceko abesbatza ohizko bisita bihurtu da Kirikiñon, arratsalde ona eta dibertigarriak igarotzeko. Bisita bakoitza gozamina da



Nagusien zerbitzura



Barrika Barri eta Kirikiñok kanpoko instalazio izugarriak daukate, jarduera batzuk antolatu ahal izateko



Abuztuan, itzelezko beroa egiten zenean, Kirikiñon, uraren gerra egin genuen. Gure egoiliarrak ondo pasatzeaz gain, hidratatu ziren

Barrika Barrin eta Kirikiñon pintxoengure "Masterchef" egin genuen. Muga oso goian zegoen baina arratsalde atsegina eta goxoa pasatu genuen, egoiliar, senide eta lagunekin batera



Barrika Barriko urteurrenean, euskal dantzen erakustaldiaz gozatu genuen. Egun ona pasatu genuen jardueraz beteta, egoiliar, senide eta lagunekin

Bilboko jaietan kalera irten ginen. Aste Nagusiko Billbainadak entzuten eta beste ekitaldi batzuetan ere. Ez da ahaztu behar gure nagusiek pertsona aktiboak direla

